

## PRACTICUM II-AREN INGURUKO ZENBAIT ARGIBIDE

### 1. Ikastetxean burutu beharreko egonaldia

2017eko otsailaren 27tik apirilaren 12era (biak barne, 7 aste, zenbait ikastetxetan otsailaren 27 edota 28a jaieguna izan daiteke, ihauteriak direla medio, ikasleak galdera egin beharko du bere ikastetxean).

### 2. Bilerak, noiz?

Irakasle guztioi gogoratzen zaizue *ezin ditugula bilerak klase orduetan jarri* eta, bilera deitu baino lehen, ikasleen ordutegiak begiratzea komenigarria dela, beraien egoerara ahalik eta hobekien moldatzeko.

Dena den, jakin ezazue astearte eta ostegunetan tarte librea dutela goizeko talde guztiek 13:00etatik 14:30era.

Bilera deia emailaz eta norberaren bulegoko atea jarriz egin. GAUREn daukazuen zerrendan agertzen zaizkizuen ikasle emailetara mezua bidali.

### 3. Practicumaren kalifikazioa

- Ikastetxeko ebaluazio orriak jasotzeaz tutorea bera arduratuko da. Beraz, bere ardura da ikastetxeko tutorearekin harremanetan izatea eta praktikaldiaren jarraipena egitea.
- Ikastetxeek betetakoari, Tutoreak *bere ebaluazioa* gehituko dio eta, batz bestekoa kalkulatu ondoren, *emaitza* azken kalifikazioaren zutabea jarriko du. Komeni da, ikastetxeko eta norberaren kalifikazioak argitaratzea ikasleak informazio hori izan dezan.
- Praktiketako notak *GAUR programan* akten atalean ere sartu behar dira; beraz, beste irakasgaiekin egiten den moduan, erreklamazio epearekin (5 egun) argitaratuko dira. Epea amaitu ondoren, espedientera pasa eta *digitalki ala idazkaritzan sinatuko* dira.

### 4. Notak argitaratzeko data

- Ohiko deialdia: kalifikazioak GAUREn *argitaratu* behar dira. Horretarako epea 2. *deialdiko(maiatzeko) azterketei dagokiena* izango da. Azkeneko akta, kalifikazio zerrendarekin batera argitaratzea gomendatzen zaizue, ikasleek praktikaldian eta memorian lortutako notaren berri izan dezaten.
- Ezohiko deialdia: kalifikazioak GAUREn *argitaratu* behar dira dagokion epeetan.

## 6. Oharrak

- Practicumeko gida guztiak [web orrian](#) dituzue. Hemen azaltzen dira irakasle tutorearen zeregin akademikoak. Era berean, practicuma burutzeko behar diren dokumentu guztiak (baita ikastetxeko tutorearenak ere) web orri honetan dauzkazue.
- Ikasleen datuak GAUREko nahitaezko praktikak atalean lor ditzakezue
- Ikastetxeen eta, batez ere, tutorearen helbideak eta telefonoak lortzeko biderik zuzenena da praktikaldiaren lehen astean ikasleek lortzea eta emailaz bidaltzea; bestela, berriz, jo gure web orriko [ikastetxeen zerrendara](#). Informazio gehiago nahiko bazenute jo Begoña Urbietarengana, 1.03 bulegoan.
- Tutorearen zenbait zeregin:
  - Bilerak antolatzea: hasi baino lehen, tartekoa(k), eta ondoren.
  - Ikastetxeko tutorearekin aurrez aurre, eskutitz bidez eta emailaz edo telefonoz harremanetan jartzea.
  - Ikastetxeko tutoreen notak jasotzea.
  - Bere ikasleekin sor daitezkeen arazoei konponbidea ematea:
    - Eskolara ez azaltzea: hango tutorearekin bermatu
    - Ardura akademikoa
    - Ikastetxeko tutoreekin erlazioa: ebaluaziorako, balorazio errealago bat lortzeko ...
- Ikastetxeetara egingo diren bisitak ordaindu egingo dira eta prozedura emailaz bidaliko zaizu.
- Egoera berezian dauden ikasleen mugak argi izan. Bestela, edozein egoera gertatuz gero, HEFAko practicumeko Dekanordetzan galdetu (Irakasletza Eraikinan):
  - Eskaera berezirik egin ez duen ikasle orok praktikaldia inolako mugarik eta baldintzarik gabe bete behar du, ikastetxeko ordutegi osoa betez eta, hala behar izanez gero, bestelako ordu batzuk ere osatuz (kontuan izan, asteko 30 ordu onartzen zaizkiola ikasleari; gelan beteko dituenak baino gehiago).
  - Exentzioa duenak bileretara etorri behar du eta bere tutoreak bidalitako lanak bete beharko ditu.
  - Bere egoeratik eta epeengatik practicuma luzatzen zaion ikasleak, lanak entregatzeko epeetara egokitu ezingo balu, practicumeko azken nota ekaineko deialdian jarriko zaio.